



## **Euskaltzaindiaren Batzar - Agiriak**

### **Bilbon Euskaltzaindiaren etxean, 1933'ko Otsailaren 16'an**

Jaun auek bildu ziran: Azkue, maipuru; Eguskitza, Olabide, Altube, Lakonbe, Elissalde ta Oleaga ta Ormaetxea urgazleak.

Otoitzez asi da.

1.<sup>a</sup> Euskaltzaindiko dirutzaren gora-berak, diruzain jaunak irakuñi dizkigu.

2.<sup>a</sup> Iztegi beñia argitaratu bear dala-ta, auxe irartzeko irarkola batzuetzaz itz egin degu.

3.<sup>a</sup> Azkue jaunak esan digu: oraintxe esku - artean darabilela euskal-lan bat, izen auxe buru jaririk: **EUSKALEÑIAREN YAKINGAIK.**

4.<sup>a</sup> Iztegi beñirako itz-sala aundia aztertu degu.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako utzirik, otoitzez amaitu degu batzaraldi auxe.

---

### **Bilbon Euskaltzaindiaren etxean, 1933'ko Otsailaren 17'an.**

Bildu ziran jaunak auek dira: Azkue, maipuru; Eguskitza, Olabide, Intzagarai, Altube, Lakonbe ta Elissalde euskaltzainak eta Oleaga ta Ormaetxea urgazleak.

1.<sup>a</sup> Iztegi beñia irartzeko *Casa Verdes*-ek eska-

tzen duena, aurre daukagu. Euskaltzain jaun guziok garesti deritzagu ta alde bat utzi da.

Bilboko *Editorial Vasca* lan ortarako egokia litzaziguke ta onen lanaren sari ta akiakuluak zeazkiro begiratzeko, urango batzar baterako utzi da.

2.<sup>a</sup> Azkue jaunak aurreko batzaraldian bere lan batez itz egin zigun. Oraingo batzaraldi onetan oren *itz-aurrea* irakuri digu. Lan oren izen burua auxe du: EUSKALERIAREN YAKINGAIK.

3.<sup>a</sup> Iztegi beñirako beste itz sala aundi bat: *pasive premisa, reembolso, relativo* ta abari dagozkionak.

4.<sup>a</sup> Alegin guziak egin bear dira *euskera* zabaldu ta eusteko Arabako Biñarealen. Badirudi, ango norbait eragozpen zaigula.

5.<sup>a</sup> Ormaetxea jaunak, erian bildutako esakun batzuek irakuri dizkigu, ta beste gairik izan ez da ototzez amaitu da batzaraldia.

---

## Donostian Eusko-Ikaskuntzaren gela nagusian, 1933'ko Epailaren 30'an.

Euskaltzain jaun abek bildu dira: Azkue, maipuru; Urkijo, Olabide, Intzagarai, Altube, Elissalde eta urgazletatik Ormaetxea jauna.

Otoitz egin da.

1.<sup>a</sup> Azkue jaunak Etxegarai jaunaren eskutitz bat irakuri digu.

2.<sup>a</sup> Iztegi beñiaren gertupenetan ekin degu: nola egin bear ote dan arpidedunen xerenda: nola iragari egunarietan eta abar...

3.<sup>a</sup> Azkue jaunak esan digu: Bilboko etxea gutxitxo ote degun, ta beste bizitza zabalago bai artzea egoki litzakela. Ontarako baduela 7.000 peseta nork eman, eta oiek iritxiko balitu, egingo dala bere asmoa